



BARREN

TOKIKOM



Kirolak bizi du

Mayi Mujika



Maria Cruz Gorostiza Garate

"Kruzita"

2022ko urtarrilaren 15ean hil zen, 97 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak



Felix Aguirrebeña Ondarre

"Kirru"

2022ko otsailaren 14an hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Felix Aguirrebeña Ondarre

"Kirru"

2022ko otsailaren 14an hil zen, 93 urte zituela.

***Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.
Ez zaitugu ahaztuko.***

Egotoki Elkarte



VIII. URTEURRENA

Amaia Arrizabalaga Arakistain

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.

***Nahiz eta denbora gehiago
pasa nahi genuen zurekin,
bihotzak bete zenizkigun
pasatako uneekin.
Ikasi dugu egun txarrei
pozez ere nola ekin,
indarra ematen baitiguzu
oroitzapen guztiekin.
Iragan adina etorkizun
izango duzu gurekin
ez zaitugulako ahaztuko
irribarre zabal harekin.***

Etxekoak



ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea



Gureaz eta besteenaz

gure hizkuntzaren ezaugarri. Ordukoak dira itzultzaile moduan eginiko lehen lantxoak ere (lekittarrek eta donostiarrek elkar ulertu ezin zutenean), eta ordukoak dira gurearen kaltetan, gainontzekoen euskalkiak goraitzen hasi nintzen lehen uneak ere. Zakarra iruditzen zitzaidan gure euskalkia, bizkaitarraren graziarik, gipuzkoarraren elegantziarik eta iparraldekoaren exotismorik gabea, ezer berezirik ez zuena, ez bata eta ez bestea, tartekoa, kaskarra.

Unibertsitate garaian berreskuratu nuen modu iraunkorrako batean ordura arte urtean bi astez bueltaka izaten nuen ideia hura. Halabeharrez irten ginen herriko betiko hartu-emanetatik, eta hamaika izkinatako jendea ezagutzeak berretsi besterik ez zuen egin lehenagotik sortua

eta barneratua nuen autokontzeptua. Erdi lotsatuta prestatzen nituen s eta z “derri-gor” desberdindu behar nituen ahozko aurkezpenak, baina ez nuen beste talde hori osatzen zutenen arteko konplizitate hori bilatzen.

Beti esaten da gure buruarekin askoz gogorrago jokutzen dugula ingurukoekin baino, gure buruari akats gehiago topatzen dizkiogula gainontzekoei baino. Hel-dutze prozesuaren parte izan da naizena mimoz tratatzea; baita ez A ez B dugun hizkera hau onartu, estimatu eta aldarrikatzea ere. *Ez onena agian, ez ederrena agian...* dio Kirmen Uribek idatzi eta Mikel Urdaingarinek abesten duen olerkiak, gurea ez da onena izango, ezta ederrena ere, baina geurea da, eta hein batean, ez al gaitu horrek ere egiten gu?

Ohiko baina gehiagotan entzun behar izan dut nire ahotsa azkenaldian. Nire ahotsa, euskaraz, elkarrizketa informal batean. Orokorrean ez gaude ohituta gure burua hizketan entzuteran, eta are gutxiago laguntzerik erabiltzen dugun erregistroan, euskalkian.

Udaleku garaian ohartu nintzen euskarak mila forma eta doinu dituela; baita txanponaren bi aldeak existitzen direla ere, aniztasun eta oztopo, biak direla

“Zakarra iruditzen zitzaidan gure euskalkia, bizkaitarraren graziarik, gipuzkoarraren elegantziarik eta iparraldekoaren exotismorik gabea”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitako erantzukizunik.

COORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloa Amaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ ELGOIBARREN ERE BASO BIZIAK!

Iritsi da *Baso Biziak* mugimendua Elgoibarrera. Ezin zen bestela izan. Denbora kontua zen. Inguruko herrietan joan dira *Baso Biziak* abizenarekin elkarteak sortzen, eta inbidiaz ikusi ditugu beraien proiektuak, eta pozez lorpenak. Iniziatiba oso politak ari dira sortzen elkarteen bueltan, lur-jabe, herritar, Udal, ikastetxe, enpresa eta abarren artean. Helburu berdinen bueltan beti ere; bertako espezieez osaturiko baso anitz eta emankorak sortzea, hain zuzen ere. Beste modu batera esanda, ingurune osasuntsu baten alde.

Guk ere helburu berari egin nahi diogu tira, gure herrian, gure erara, gure erritmoan. Taldea sortu dugu,

hazia erein dugu, eta interesa duzuen herritarrekin elkartzeko aukerak sortu nahi ditugu, guztion artean forma eman eta bidea egin dezagun.

Hau dela eta, hitzaldi baterako gonbitea luzatu nahi dizuegu. Baso kudeaketaren inguruan jardungo da Iñaki Aizpuru otsailaren 21ean, astelehena, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan.

Bestalde, bertaratzerik izango ez bazenu, baina interesa izanez gero, idatzi gure helbide elektronikora (elgoibarkobasobiziak@gmail.com) eta elkar ezagutzeaz gain, gure pausoen berri izango duzu.

Laster ikusiko dugu elkar!

Elgoibarko Baso Biziak

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datarren eskutitz argitaratuko.



Jose Mari Aranburu Gabilondo

2022ko otsailaren 15ean hil zen, 93 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Izan zarena, erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.*



Jose Mari Aranburu Gabilondo

2022ko otsailaren 15ean hil zen, 93 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Haizeari esango diogu
aurkitzen zaren lekura arte
belarrira xuxurla zaitzala
ez zaitugula inoiz ahaztuko*

Etxekoak



Foru Aldundiak 100.000 euro jarriko ditu ufalek bidegorrian eragindako kalteak konpontzeko

J oan zen abenduan Elgoibar eta Eibar arteko bidegorrian hainbat kalte eragin zituzten euriteek. Uholdeekin lur-jausiak izan ziren eta bidegorriaren paraleloan doan Deba ibaiaren ur igoeraren ondorioz, altzariak ere hondatu ziren.

Garbiketak egin zituzten arren oraindik konponketa lanak egiteko daude. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentutik esan dutenez, konponketak bi zatitan egitea aurreikusi dute: batetik, uholdeekin apurtutako egurrezko hesiaren konponketa eta bestetik euri jasaren ondorioz jausitako harri-lubetaren konponketa. Horren ondoren, petrila handituko dute eta horri esker bidegorriaren horma altuagoa izango denez, bidea etorkizuneko uholdeetatik babestuko du. Hesia konpontzeko, dagoeneko materialak badituzten arren, berehala berrezartzea espero dute. Harri-lubeta konpontzeko, ordea, ibaiaren maila noiz jaitsiko den zain daude, obrak segurtasunez egin ahal izateko. Obra horiek 100.000 euro inguruko aurrekontua dute.

Argia eta komuna

Bestalde, bidegorriko argi faltari aurre egiteko proiektua urteko lehen sehilabetekoan idaztea espero dute. Horretarako, Foru Aldundiko teknikariek bidegorriaren erabiltzaileen zuzenaren aukerarik onenak aztertu behar dituzte.

Bidegorrian komunak jartzeak ere sortu du zeresanik, izan



ere, hasiera batean, asmoa Elgoibarren jartzea zen, baina beste kokaleku batzuk ere aipatu dira. Gipuzkoako Foru Aldunditik esan dutenez, "gai hori Elgoibar eta Eibarko Udalak aztertzen ari dira eta kokapenik egokiena Maltzaga dela dirudien arren, oraindik administrazio-arazoak kaonpontzeko daude". Hala ere, Eibarko alkateak baieztatu du komuna Maltzagan ipiniko dutela.



Herriko hainbat jolas parke garbituko dituzte

Herriko hainbat jolas parke garbitzeko plangintza jarri du abian Elgoibarko Udalak. Dagoeneko garbitu dute Giza Eskubideen parkean dagoen jolas parkeko lurra (beheko argazkian), eta bariku honetan, otsailak 18, San Pedro 12-14 zenbakien arteko parkea garbituko dute. Datorren astean, berriz, Erretxundi eta Sig-mako jolas parkeak garbituko dituzte. Biondo Garbia enpresa ari da garbiketa lanok egiten.

Hainbat ekitaldi egingo dituzte Mendaron, inauteriak ospatzeko

Mendaroko Ludotekak eta Gaztelekuak programazio berezia antolatu dute datorren asterako, inauteriak direla eta. Ludotekan *cluedo role play* eta mozorro lehiaketa egingo dituzte bihar, eta otsailaren 24an, 25ean eta 28an inauterietako apaingarriak egingo dituzte. Martxoaren 1ean, aldiz, mozorro desfilea, globoflexia eta jolasak izango dituzte. Gaztelekuan, bestalde, mozorro-argazki lehiaketa eta merienda izango dira hilaren 26an. Egun berean dantza kalejira bat egingo dute, eta arratsaldean, disko festa eta playbacka izango dira, Arnok antolatuta. Otsailaren 21erako eman behar da izena, ekintzakarno@gmail.com helbidean.

Denda txikiek zabor bilketarekin duten konpromisoa neurtuko dute

Debabarreneko denda txikiek gaikako zabor bilketarekin duten konpromisoa neurtuko du mankomunitateak datozen hilabeteetan. Era berean, erraztasunak emango dizkie dendariei hondakinak modu egokian birziklatzeko.

Eskualdeko saltoki txikietara bisitak egingo dituzte programaren baitan. Elikagaien sektoretik hasiko dira, hauek sortzen baitute hondakin gehien; guztira 214 identifikatu dituzte. Man-komunitateak hiru aldiz bisitatuko ditu saltokiak; lehenengoan egitasmoa azaltzeko eta besteetan birziklapen ohituren jarraipena egiteko, hobetu daitezkeen ohiturak identifikatzeko eta irtenbideak bilatzeko.

Mankomunitateak hondakinak modu egokian banatzen dituzten saltokiei *Hemen ondo birziklatzen dugu* ikurra emango die, eta erakuslehoan jartzeko pegatina batekin ingurumenarekiko errespetua agerian geratuko da. Mankomunitatearen webgunean ere ipiniko dute ikurra lortu duten saltokien zerrenda. Ondoren, aldizka saltokien birziklapen ohituren jarraipena egingo du.

Mankomunitatea saltokietara gerturatzea ere bada ekimenaren beste helburu bat hauen beharrak eta iradokizunak entzuteko eta erraztasunak emateko hondakinak gaika biltzeko. Esaterako, hondakin organikoak banatuta jasotzeko, tamaina ezberdinetako edukiontzia eta poltsa konpostagarriak doan emango dizkiete behar badituzte.



San Lazaroko adinekoentzako jolasak egin dituzte IMHn

San Lazaroko egoiliarrek eta IMHko ikasleak programa batean parte hartzen ari dira esperientziak partekatzeko eta elkar ezagutzeko. Horren harira, IMHko hainbat ikasle San Lazaro egoitzarako helburu terapeutikoak dituzten jolasak diseinatzen eta fabrikatzen ari dira. Mekanizazio arloko bigarren mailako ikasleek egin dute jolasa eta psikomotritzitatea hobetzea du helburu. Horretarako, material plastikoekin egin dituzte bederatzi pieza fresatzeko makinekin eta tornuekin. Egoiliarrek ikasleek diseinatu eta 3D inprimagailu batekin egindako oinarri bateko hutsuneetan jarri beharko dituzte piezak. Covidaren eraginez egoiliarrek isolatu eta talde txikietan banatu behar zituztenez, guztiek ezin zituzten egoitzako helburu terapeutikodun jolasak erabili eta horrek kalteak eragiten dituzenez, IMHri eskaria egin zieten. Jostailu hau egiteaz gain, baloreak lantzeko baliatu duten programan ere jardun dira. Jolasak IMHn emango dizkiete otsailaren 25ean San Lazaroko egoiliarrek hara egingo duten bisitan.

Banatu dizuzte Txankakuako Gabonetako sariak



Txankakua Merkatarien Elkarteak Gabonen bueltan urtero antolatzen duen zozketako zortedunek astelehenean jaso zituzten sariak. Txankakua 1.800 euro banatzekoa zen, baina 100 euroren bi saridun ez dira agertu epe barruan, hortaz, 1.600 euro eman dituzte guztira merkatarien elkarteko dendetan gastatzeko erosketa bonotan. Jose Pedro Gallegok eta Sorkunde Juaristik 500 euroko sari bana jaso dute eta gainontzeko hauek 100 eurokoak: Maria Fran Arrillaga, Carmen Anghel, Donia Morales, Idoia Garcia, Maite Larrañaga eta Dorleta Arozena.

Karakaten bi haize-errota jartzeko proiektua aurkeztu dute Sorluzeko Udalean, eta Elgoibarko EHBilduk 'kezka' agertu du



Capital Energy enpresak Karakate eta Atxolin artean bi haize-errota handi jartzeko egitasmoa aurkeztu su Sorluzeko Udalean, eta horren aurrean "kezka handia" adierazi du Elgoibarko EH Bilduk. Karakaten parke eolikoak ipintzeko aukera Eusko Jaurlaritzaren Lurraldearen Arloko Planean (PTS) jasota dago eta aukera hori baliatuta jakinarazi du Capital Energy enpresak Karakaten 170 metroko garaiera izango luketen bi dorre eoliko ipintzeko asmoa. Capital Energy enpresako ordezkariak Sorluzeko Udaleko ordezkariari aurkeztutako egitasmoaren arabera, haize-errota bakoitzak 100 metroko altuera duen zutaina eta 80 metroko luzeera duten hegala izango ditu. Karakateko antenarekin konparatuta (70 metroko altuera du), mendi gainean ezarri asmo dituzten dorre eolikoek antenaren altura bikoitza baino handiagoa izango dute. Sorluzeko Udalak jakinarazitakoaren arabera, proiektuaren tramitazioa hasiko dute Gipuzkoako zein Euskadiko Boletín ofizialetan argitaratu eta astebete edo bira. Hori argitaratu ondoren, 20 eguneko epea zabalduko litzateke proiektua aurkezteko. Gero, Eusko Jaurlaritzak lehiaketa deitu beharko du, eolikoak ipintzeko interesa izan dezaketen bestelako enpresei ere aukera hori zabaltzeko. Ondoren, sei hilabete izango dira exekuzio proiektua aurkezteko eta Eusko Jaurlaritzak Ingurumen Inpaktua idatzi beharko luke.

EH Bildu kezkatuta

Elgoibarko EH Bildutik jakitera eman dutenez, haize-errote-tako bat Akilar muinoan ipini nahi dute, Karakatek Atxolinerako bidean den lehen muinoan (Akullar edo Akelarre ere esaten

zaio) eta bestea Pagomunetan, Gizaburua trikuharritik hurbil. Koalizioak gogora ekarri du mende hasieran Karakate eta Irukurutzeta artean parke eoliko bat egiteko asmoa mahai gainean egon zela, eta testinguru hartan egin zen EAEko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialean atzera bota zutela, "jasotako alegazioak eta administrazioen arteko akordioak" kontuan hartuta. Natura intereseko gunea dela ere nabarmendu dute EH Bildutik. Azaldu dutenez, 2019an onartu zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan, "natura-interesa duen beste espazio multifuntzionaltzat" jo zuten Karakateko ingurua eta Korridore Ekologikoen Sare barruan dagoela aipatzen da. Orduko proiektua baztertzeko zeuden arrazoiak gaur egun ere bere horretan direla uste dute.

EH Bilduren ustez, hainbat puntu dira baloratu beharrekoak gai honen inguruan. Batetik, haize-errotek paisaia izango duten eragina "ikaragarria" izango dela diote. Horrez gain, haize-errota horiekin sortuko litzatekeen energia Azkueko zentral elektrikorako bideratzeko plana dagoela argitu dute, baina oraindik ez dakite lur azpitik edo airetik jarritako kableen bidez izango ote den. Era berean, Mendilerroa, Karakatek Iriroraino, guneko arkeologiko oso garrantzitsua dela ere gogora ekarri dute, eta zehaztu oraindik ere ez direla egon litezkeen aztarna guztiak aurkitu. Azkenik, Karakate inguru hori eskualdeko milaka lagunentzako "arnasguneko handia" dela diote EH Bilduko arduradunek, eta haize-errotekin "ingurune naturala izateari laga eta inguru teknologiko" bihurtuko litzatekeela azaldu dute.

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Merkealdia!

%25

- ★ **Neguko izaretan**
- ★ **Sherpa edredoietan**
- ★ **Manta guztietan**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Epailleak brigadako beharginen aldeko ebazpena eman duela esan du ELAk



H erri-lanetako Brigadako langileek beren lan baldintzak hobetzea eskatu zieten Elgoibarko Udaleko arduradunei, eta eskaerak aurrera egiten ez zuela ikusita, epaitegietara jo zuten. ELA sindikatuak jakitera eman duenez, epailleak langileei eman die "arrazoia" eta Udala derrigortu du brigadako langileek jasotzen duten soldata eta egiten duten lanagatik jaso beharko luketenaren arteko aldea ordaintzera. Hala ere, legez urtebeteko soldata aldea baino ezin dezakete eskatu. Kalkulatu dute urtebetean 3.000 euro inguru gehiago jaso beharko lukeela behargin bakoitzak soldatetan. ELAren esanetan, Udalarekin hainbat bilera egin dituzte arazoa konpondu nahian, baina Udalak ez du kasurik egin eta jarrera hori izan da langileen kalte ekonomikoa sortu duena. Beraz, aurrera begira momentu hau egokia izan daiteke harremanak berbideratzeko.

Soldatenaz gain, brigadako langileek salatu dute arduradunik gabe dardela, izan ere azkenak erretiroa hartu zuenetik zerbitzuetako buru bat dutela, baina bulegoko lana egiten duela bereziki, eta langileekin egongo den arduradun bat behar dutela.

Urazandiko saneamendu sareko lanak direla-eta hainbat eskailera ezingo dira erabili

Urazandi kalearen beheko aldean, igogailu publikoen inguruan, saneamendu sareko hodiak aldatzeko lanak egiten ari dira. Izan ere, igogailuaren ondoan ur zikinen hodiaren bat hondatu zela esanez, hainbat



kexa egin dituzte herritarrek azken hilabeteetan. Auzotarrek ohartarazi zuten espaloira ur zikina irteten zela, eta inguru horretan usain txarra zegoela eta hori konpontzeko dihardute lanean. Lanek iraun bitartean, igogailu publikoaren alboko oinezkoentzako eskailera ez dira erabilgarri egongo.

Zuhaitz Eguna izango da bihar Mendaron

Bihar, zapatua, Zuhaitz Eguna egingo dute Mendaron Udalak antolatuta, Arno Guraso Elkartearen laguntzarekin. Mendaroko Enparantzatik 9:30ean abiatu eta ibilalditxo bat egingo dute familia giroan Santa Kurutz ingurura. Udalak han dituen lur-sailetan, arbolak landatuko dituzte baita babesak jarri ere, orkatzek eta gainerako animaliek arbola-landareak zuritu ez ditzaten. Landaketaren garrantziaren inguruko azalpena ere emango du Nahiara Mugertza biologoak. Izan ere, familiak kontzientziaztea eta ingurumenarekiko arduraren sustatzea dira ekimenaren helburuak. Antolatzaileek gomendatu dute arropa eta oinetako egokiak eta hamaiketako eramatea.



Elgoibarko basoei buruzko hitzaldia astelehenean

Astelehenean, otsailaren 21ean, *Elgoibarko basoen etorkizuna* izenburupean hitzaldi bat emango du Iñaki Aizpuruk, 19:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Ondoren eztabaidarako tartea izango da. Iñaki Aizpuru botanikoa Gipuzkoako Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan naturaren kudeaketan lanean jardundakoa da eta orain, Itsasondoko alkate izanik, hango basoak berreskuratzeko programa koordinatzen ari da. Asteleheneko hitzaldia Elgoibarko baso biak taldearen estreinako ekintza da eta gai honetako interesa dutenek helbide honetara idatzita jar daitezke elkartearekin kontaktuan: elgoibarkobasobizak@gmail.com



► MAYI MUJIKA

MENDI KORRIKALARIA

Umetatik dihardu kirolean Mayi Mujikak (Legazpi, 1988). Bizikleta gainean ez bada arineketan edo umeak kirolera gerturatzen aritzen da, Eskola Kiroleko hezitzaile ere bada-eta. Mendi lasterketetan jarduten du batik bat eta hainbat podiumetara igotzeko edo aurreko postuetan sailkatzeko adina ahalegin ez zaio falta izan. Duetloietan ere ibiltzen da, eta mendiarekin lotutako kirolak ditu gustuko. Gora eta behera indartsu aritzen da.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

“Denboraldia bukatutakoan gehiagorako gogoz gelditzen naiz”

◆ Betidanik izan zara kirol zalea, ezta?

Txikitatik kirol guztiak gustatu izan zaizkit. Motoan eta bizikletan ibiltzen nintzen, mendian gurasoekin eta baita atletismoan ere. 14 urterekin futboleant hasi nintzen eta 11 urte eman ditut futboleant, beti ere mendiarekin tartekatuz. Orain bizikletan ere ibiltzen naiz, eskiatzen dut, eskalatu ere, eta noski, mendi lasterketetan hartzen dut parte. Orain mendiarekin lotutako kirolak nabil, batez ere.

◆ Mendi lasterketetan nola hasi zinen?

Anaiarekin eta mutilagunarekin sarritan komentatu izan nuen Goierriko Bi Handiak mendi lasterketetan parte hartzearen kontua, eta 2016an animatu egin ginen. Proba prestatzen hasi ginen, aurrez, inguruan mendi lasterketa laburrak eginez. Gustatu zitzaizkidalda eta gaizki ez nenbilela ikusita horrelako lasterketekin jarraitu nuen. Geldi ez naiz inoiz egon, beti aritu izan naiz kirolean. Lanean spinning eskolak ematen nituen eta orain eskola kiroleko begirale ere aritzen naiz.

◆ Nolako lasterketak egiten dituzu?

Denetarikoa. Azken urteetan 30-40 kilometro ingurukoetan korrika egin dut batez ere eta gustatu izan zait, egutegiak utzi izan badit behintzat, lasterketa luzeagoren bat egitea, Ultraren batedo.

◆ Goierriko Bi Handietan hasi eta gerora makina bat lasterke-

tatan aritu zara. Zer da zuretzat mendi lasterketetan korrika egitea?

Azken urteetan bidaiatzeko eta jende asko ezagutzeko aukera eman didan kirola izan da. Hemen inguruko lasterketak asteburua pasatzeko eta leku berriak ezagutzeko aitzakia ere badira eta kanpora joan izan naizenetan leku asko ezagutu ditut eta baita lagun asko egin ere. Kirolari dagokionez, mendian korrika egitea gustuko dudan zerbait da. Asfaltoan pare bat lasterketa egin ditut baina ez zait gustatzen. Entrenatzeko ere derrigortuta jarduten naiz asfaltoan. Mendian erritmoak ezberdinak dira. Asfaltoan konstantzia da oinarrizkoa. Bestalde, lesioei dagokienez ez nabil oso fin eta mendiak aukera gehiago ematen dit korrika egiteko, asfaltoak artikulazioak mintzen dizkit.

◆ Konstantzia entrenamenduetan beharrezkoa izango duzu, ezta?

Nire kontura entrenatzen hasi nintzen eta gero, selekzioan sartu nintzenean Jokin Lizeagaren laguntza eduki nuen. Asteburuetan irteera luzeak egin ditugu, korrika ezezik, baita bizikletaz ere. Asteazken zehar gimnasia joaten naiz, asteazken behin asfaltoan ere egiten dut korrika, eta gainontzean mendira joaten naiz. Karakate aldera jotzen dut asko, baina orain Sigmako lantegi batean lan egiten dudanez, Moru inguruan ere egiten ditut entrenamenduak. Irimo aldean ere oso gustura

ibiltzen naiz, baina aspaldian ez naiz hara joan. Bazkaltzeko tartean entrenatzen dut eta libre ditudan beste tarte guztiak ere aprobetxatzen ditut kirola egiteko, beraz, ezin naiz asko urrundu. Denboraldia bukatzean ere ez diot kirola egiteari uzten, baina orokorrean mendira korrika joatea aisialdiko jarduera bat gehiago da niretzat. Bada denboraldia erreta bukatzen duenik, baina niri ez zait gertatzen; denboraldia bukatzen denean gehiagorako gogoz gelditzen naiz.

♦ **Anaiarekin eta mutil-lagunarekin hasi zinen horrelako lasterketetan eta gaur egun ere taldean jarduten duzu. Beharrezkoa da inguruan lagunduko zaituen talde bat izatea?**

Bai, noski. Anaiarekin eta mutilarekin hasi nintzen, baina gurasoek lasterketa guztietara laguntzen zidaten. Espainiako Kopan, esaterako, gurasoak lasterketa guztietara joan ziren eta hori eskertzekoa da. Euskal Herriko selekzioan taldea osatu genuen eta selekzioak utzi didan gauzarik onena lagun taldea da, orain utzi dugun arren. Lasterketak bakarkakoak dira, baina asteburuetan ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin.

♦ **Lasterketen errepassoa egin beharko bazenu...**

Espainiako kopan hirugarren izan nintzen 2018an; urte horretan bertan Zermaten (Suitza), Munduko kopako lasterketan, eta Hiru Handietan hirugarren postua eskuratu nuen. 2021ean Munduko Kopan bosgarren tokian sailkatu nintzen eta lasterketetako bat irabazi ere egin nuen.

♦ **Badago lasterketarik bereziki gustatzen zaizunik?**

Alpeetan egiten direnak oso politak dira eta Zermatekoa bereziki gustatzen zait, lehenengo urtean hirugarren postua lortu nuelako eta oporretan izanik hango txokoak ezagutzeko aukera ere ematen didalako. Japoniarako bidaiarekin ere sekulakoa izan zen, 2019an. Munduko kopa egin nuen urte horretan, baina txapelketaren erdian lesionatu egin nintzen eta ez nuen bukatu. Gertuan ere egiten ditut, noski. Karakateko igoera bai, baina ez zait gustatzen: bertikalak oso motzak dira eta jaitsierarik gabek, eta nik jaitsieran gehiago gozatzen dut. Hala ere egoten den giroarekin egun polita izaten da. Aloñakoa gustuko dut eta Urretxukoa ere, han bizi izan nintzelako. Luzeetan Hiru Handiak, Goierriko Bi Handiak, Leitzako mendi erronka edo Zegamakoa. Azkena entzutetsua da, baina bi urtetan ez zait ondo aterata eta gozatu baino, sufritu egin dut. Munduko kopako lasterketetan ohitu naiz azken aldian eta oinez egitekoak dira, aldapa gogorragoekin. Ez dut esan nahi Zegamakoa ez direnik, baina han korrika gehiago egiten da. Niri aldapa gogorrak gustatzen zaizkit, oinez igotzekoak, eta Zegaman korrika egiteko kilometro asko daude.

♦ **Mendiko lasterketez gain, duatloiak ere egiten dituzu, ezta?**

Bai, duatloiak mendi lasterketen egutegiaren bukaeran izaten dira, beraz, aukera izanez gero egiten ditut. Laz, Munduko koparik ez zen egon eta duatloi guztiak egin nituen, baina aurten bakarra. Niretzat proba motzak dira bi orduz azpikoak eta korrika guztira hamar kilometro egiten dira, beraz, oso indartsuak dira. Baina asko gustatzen zaizkit, bizikletagatik.



“Atzerrian, normalean ez da jenderik egoten lasterketak ikusten”

♦ **Euskal Herritik kanpoko lasterketak ala bertakoak dituzu nahiago?**

Kanpoan egon naizenetan hemengoan falta sumatu izan dut, batez ere giroagatik; atzerrian, normalean, ez da jenderik egoten ikusten. Hemen giro polita egoten da eta nire saltsan ibiltzen naiz. Kanpoan paisajeaz gozatzen dut eta bidaiarekin eta esperientziarekin polita izaten dira.

♦ **Ezberdintasun asko sumatzen dituzu mendiko lasterketetan emakume eta gizonen artean?**

Nik pertsonalki ez, eta taldean ere ez. Sare sozialetan egoten dira komentario zatarrak, baina ni ibiltzen ez naizenez ez dakit ezer zehatzik. Konparaketak egiten dituzte Killian Jornetekin edo Aritz Egearekin eta ondoan daukagu Maite Maiora beste gizonetako batzuk baino maila handiagokoa. Egon dira lasterketa luzeak, oso kasu gutxitan izan arren, neskek irabazi dituztenak. Lehen, mutil-lagunarekin korrika egitera joaten nintzenean erreferentzia bera zen, askok uste zuten niri laguntzen, nire eritimoa bera joaten zela, baina nik itxopen nion eta horrelako komentarioek amorratzen ninduten: “zure neska-lagunak irabazi dizu, ezta?”, esaten zioten mutil-lagunari eta hori esan zuen mutilaren

aurretik iritsi nintzen. Gizarteak oraindik horrela jokatzen du.

◆ Ba al daukazu egin nahi zenukeen lasterketarik?

Madeirako lasterketarako ilusio berezia nuen, pandemiagatik atzeratu zutenean. Aurten egin dut eta gainera irabazi, beraz, oso pozik. 45 kilometrokoa zen, ondo egokitzen zaidan distantzia da eta isla bera ezagutzen ez nuen, paisajea ere gustatu zait.

◆ Mendi lasterketak bai, baina ezberdintasunak izango dituzte beren artean, ezta?

Bai, lurralde batetik bestera asko aldatzen dira. Terrenoa eta desnibelak egiteko moduak dira ezberdinak. Batzutan poliki-poliki joaten gara igotzen eta beste batzutan ez dago korrikarako aukerarik gora-behera-gora-behera izaten da ibilbidea. Nik lasterketa gogorak eta teknikoak nahiago ditut, oinez igo beharrekoak eta jaisteko ere zailak direnak, harri asko dituztenak eta hanka bakoitza non jarri behar den ondo begiratu beharrekoak. Hemengo lasterketatik lokatza ere gustuko dut, hor teknika behar da eta zailtasun horrek indartzen nau. Lauan korrika egiten ez naiz ona.

◆ Pandemiak izan du eraginik?

Munduko kopakoak ez ziren egin eta horregatik egin nituen duatloiak. 2021ean egutegian izan da aldaketarik, baldintzak pixka bat egokitu badira ere. Entrenamenduak bere garaian etxean egin genituen, baina gainontzean berdin jardun dugu.

◆ Euskal Selektzioak kideok erabaki duzue aurrerantzean ez duzuela selektzioarekin korrika egingo. Zer dela eta?

Federazioko zuzendaritza berria martxoan sartu zen eta sartu orduko aldaketekin hasi ziren zertan ari ziren ondo begiratu gabe. Gure hautatzaileak (Gaizka Barañano eta Asier Arregi) guregatik ibili ziren zoroen pare borrokan eta denboraldi bukaeran denok elkartu ginen zuzendaritza berrikoekin eta baldintza batzuk jarri genituen, esanez horiek bete ezean ez genuela jarraituko. Bilerara joan eta baldintzak azaldu aurretik hautatzaileei jakinarazi zieten kaleratu egin zituztela, arrazoirik eman gabe. Guregatik gehien egin dutenak botatzea gaizki iruditzeaz gain, pentsatu genuen horrela ezin genuela segi eta utzi egin dugu. Esan dute lagun koadrila bat ginela, nahierara hautatuak irizpide batzuk bete behar direnean selektzioan sartzeko. Orain, banan-banan deitu digute ea hurrengo denboraldian selektzioan joan nahi dugun galdetuz, beraz, irizpideak betetzen genituen. Kontraesan asko daude eta penaz, baina erabaki dugu uztea.

Aurrerantzean lehen bezalaxe jarraituko dut, inguruko lasterketetan. Espainiako txapelketara gure taldea selektzio moduan joan da, modu ofizialean izango ez bada ere, erakustera gai gara. Belauna minduta dut azken bi urteetan eta agoantzen badiit lasterketa luzeren bat ere egin nahiko nuke, hemen inguruan, gus-tatzen zaidan distantzian disfrutatuz.

◆ Hurrengo lasterketa hautatu duzu?

Igandean Lezo-Jaizkibel lasterketara joango naiz. Martxoaren 6n Urretxu-Zumarragakoa egingo dut; apirilak 3an Kilimon trail Mendaron; apirilaren 23an Espainiko txapelketa Viveiron, Galizian; maiatzaren 21ean El Cainejo desafio ultra, Asturiasen; eta

osorik jarraitzen badut, abuztura bitartean besteren bat. Nik aste-bururo lasterketaren bat egingo nuke, baina ezin da. Orain ez naiz apenas kanpora joango. Pentsatu nuen udan beharbada Alpeetara joatea, baina lasterketarik izango ez dugunez beste bi-daiaren bat egingo dugu, baina seguraski mendi inguruan.

“Lasterketa gogorak eta teknikoak nahiago ditut”



Merrel Sky Race Comapedrosa, Andorran.



Zegama-Aizkorri lasterketa.



Madeira Sky Racen irabazle.



Zuen keaxak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 634 044



Txakur jabeek ez daukate errespeturik: "Udalak saiakera egin du txakur eta herritarren arteko elkarbizitza hobetzeko, baina txakur jabe batzuek kanpainari muzin egin diote. Ez dago eskubiderik. Txakurren kaka poltsan batu eta kartelaren ondoan utzi du norbaitek. Herriko bazterrak txakur kakaz beteta daude, eta hori ez da txakurren errua. Jabe baikoitzak bere txakurren ardura hartu dezala, mesedez".



Botilen edukiontzia gainezka dago: "Mendaron, Garagartza auzoan, beiraren edukiontzia gainezka dago azkeneko hiru bat astean. Ondorioz, jendeak kanpoan pilatuta uzten ditu botilak eta gainerakoak, eta inguru guztia kristalez beteta dago. Edukiontzia musika eskola parean dago, haur parkearen ondoan eta errepide ertzean. Mankomunitateari eskatzen diogu sariago hustu ditzan".



Noiz aldatuko dituzte Iñigez Karkizao kaleko edukiontziak? "Herriko hainbat lekutan lur azpiko edukiontziak kendu eta gainazalekoak jartzen ari dira, eta zaharrak zeuden beste edukiontzi batzuk ere konpondu dituzte. Jakin nahiko nuke gure kaleko edukiontziak noiz aldatuko dituzten. Zaharkituta daude, eta gainera, edukiontzi horiak eta urdinak aho txikiegia dute. Herritarrei birziklatzeko erraztasunak eman behar zaizkiela iruditzen zait". Hirigintza Saitetik jakinarazi dutenez, Iñigez Karkizaoko edukiontziak Mankomunitateko edukiontzi sistema aldatzean egingo dute aldateta: "Gaur egun bi motako zerbitzu linea daude: igluak eta aldameneko kargakoak. Bi ibilbide desberdinetan daude antolatuta, bi kamioik jasotzeko zaborra".



Txalo bat, zubi zaharreko zuloak itxi dituztelako: "Urteetan denetarikoz zaborra eta zikinkeria pilatu izan da Merkatu Plaza atzeko zubian dauden zulo horietan, bai euriak eta haizeak ekartzen zituelako eta baita jendeak botatzen zituelako. Orain itxi egin dituzte, eta eskertzekoa da. Oso txukun geratu da. Irtenbide erraza zeukan arazoak!".



▶ ANDONI SEGUNDO ETA JOSEJA ARREGI

24/7 PLATAFORMAKO KIDEAK

Elgoibarko hainbat gizarte eragilek osatutako plataforma da 24/7 izenokoa, eta Elgoibarko anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabaltea da euren helburua. Borroka horretan elkarretaratzeak eta manifestazioak egin izan dituzte, eta abenduan zehar sinadura bilketa ere egin zuten. 5.501 sinadura lortu zituzten, eta orain, Udalaren esku utzi dituzte guztiak. Plataformak bilera eskatu die orain Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoei, aurrera begirako pausoak zehazteko. Joseja Arregik eta Andoni Segundok eman dituzte azalpenak.

- AINHOA ANDONEGI -

“Pandemia komodin bat izan da gauza asko justifikatzeko, bereziki, kudeaketa txarra”

- Andoni Segundo -

♦ **5.501 sinadura entregatu dituzue Udalean. Ez da Elgoibarren horrelako egitasmoren bat egiten den estreinako aldia. Zer espero duzue oraingoa?**

Andoni Segundo: Orain dela hamar bat urte egon zen kanpaina honen aurrekari bat. EAK bultzatu zuen orduan sinadura bilketa eta bi milatik gora bildu zituzten. Udal korporazio guztiak babestu zuen hura, baita PP-k ere, baina gero sinadura horiekin guztiekin zer gertatu zen inork ez daki. Kajoi batean gordeta geratu dira?. Askotan gertatzen dira horrelakoak, batez ere, emaitzak gustukoak ez direnean. Guk ez dugu nahi orain gauza

bera gertatzea, eta espero dugu ez dela gertatuko.

Joseja Arregi: Udala prest agertu da sinadura horiek Osasun Sailera bideratzeko, eta espero dugu egingo duela bitartekari lan hori, baina badakigu Udal arduradunak ez daudela pozik gai honekin. Lehen ere erreklamazio orriak betetzeko eskaera egin genuen, eta milatik gora bete zituzten herritarrek. Orduan erantzun mekanizatua jaso zuen herritar bakoitzak, eta hortan geratu zen. Guk bilera eskatu dugu Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoeekin, erantzunen bat jasotzeko. Abenduaren 22an sartu genuen azken mozioa Udalean, eta aurrera atera

zen, baina guk ez dugu inolako erantzunik jaso, eta pasatu dira egunak orduetik. Gure nahia gai hau Legebiltzarrerera eramatea da. Ez dakit nola egingo dugun, baina lortuko dugu.

♦ **Lau mila sinadura biltzeko helburua zeneukaten, eta zifra hori gainditu duzue. Kanpainak eman duenaren balorazio bat egingo diguzue?**

J.A.: Herriak hitz egin du. Herriak argi eta garbi adierazi du bere beharra, eta guk uste dugu horrek erantzuna merezi duela agintarien partetik. Elgoibarrek anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabalteko beharra adierazi du, eta hori lehentasunezko gaia izan beharko litzateke Udalarentzat. Herriko 18 urtetik gorako biztanleria kontuan hartuta, %60k sinatu du, eta hori ezin da oharkabea pasatu.

A.S.: Gu oso pozik gaude emaitzarekin. Plataforma anitza sortu dugu, kolore guztietako jendea bildu gara, eta sinatzaileen artean ere denetarikoa herritarrek egon dira. Guk ez daukagu interes politikorik gai honetan, osasuna da gure lehentasuna. Kanpaina oso ondo joan da: 60 bat lagun aritu dira mahaietan sinadurak biltzen, herriko ia 150 establezimenduk ere bat egin dute kanpainarekin, enpresetako sindikatuek, ikastetxe batzuek... Guretzat hori izan da inportanteena, kanpainan inplikatu den jende kopurua.

♦ **Murrizketak salatu izan dituzue zuek, baina Sagardui Osasun Sailburuaren hitzetan "ez da murrizketarik egin, ez lehenago eta ezta pandemia garaian ere". Zer uste duzue?**

J.A.: Hemerotekan begiratuta ikusi dugu orain dela hamar urte ere protestak egin zituztela Elgoibarko anbulatorioko langileek, murrizketen kontra, beraz, hemen aspalditik ari gara murrizketak jasaten, eta sailburua komunikabideetan irteera esaten ez dagoela medikurik, lotsagarria iruditzen zait. Bera da kudeatzailea eta hori berak konpondu behar du. Guk jendearen haserrea ikusi dugu, bereziki, adinekoena. Sinatu duten guztiak aipatzen zuten pandemia aurretik ere egoera txarra zela osasungintza publikoan, eta pandemiarekin are gehiago okertu dela. Osakidetza pandemia garaian zerbitzua indartu egin beharko luke, murriztu beharrean. Erreminta falta ez da gure arazoa, hori beraiek konpondu behar dute. Baina ez dezala esan murrizketarik ez dagoela, gure herriko anbulategia 17:00etan ixten dutenean egunero! Bariku atsaldetik astelehen goizera arte itxita egoten da, eta hori gehiegizkoa da. Eta ez da gurea bakarrik: Eibarren, Ermuan, Zumarragan... leku askotan egon dira murrizketak, baina Debabarrenean izugarriak. Eibarko eta Ermuako jendea ere gerturatu zitzaigun kanpainan zehar, eta esan ziguten herri horietan ere hasi behar zutela protestan.

♦ **Behin eta berriz esan duzue pandemia aitzaki bat besterik ez dela izan murrizketa gehiago egiteko.**

A.S.: Pandemia komodin bat izan da gauza asko justifikatzeko,

"Herriak argi eta garbi adierazi du bere beharra, eta guk uste dugu horrek erantzuna merezi duela agintarien partetik"

- Joseja Arregi -

batez ere, kudeaketa txarra. Elgoibarko anbulatorioko langile batzuk Londresera joan dira lanera, hemengoak baino baldintza hobek eskaintzen dizkietelako. EAjk defendatu du Osakidetza bere arrekontua handitu egin duela, baina guk dakiguna da gure anbulatorioak itxita jarraitzen duela. Atzerapauso bat egon da, eta gure ustez honen atzean pribatizazioaren aldeko apustua ere egon daiteke.

J.A.: Ni covid-19agatik konfinatuta egon naiz, baina 70 urte ditudalako eta zaurgarrien taldean sartu nautelako deitu zidaten proba egiteko, bestela kalean egongo nintzateke, libre, lagunekin. Ez neukan sintomarik, eta bakunatuta nago. Berez, bizimodu normala egin nezakeen. 69 urte izango banitu, birusa zabalitzen ibiliko nintzen, lasai-lasai. Ulertzen dugu mugak jarri behar dituztela, baina gure ustez, zerbitzuak hobetzea izan behar da Osakidetzaren helburua, eta ez murriztea.

♦ **Biztanleriari erreparatuta, eta inguruan ditugun ospitaleak kontuan hartuta, badakizue Elgoibarri tokatzen zaion anbulatorioa 24 orduz irekita edukitzea?**

J.A.: Ez dakigu, eta ez zaigu inporta gainera. Lehen bageneukan, eta hori berreskuratu nahi dugu. Lehen izan bagenuen, orain zergatik ez?. Hemen egun batetik bestera murrizten dituzte zerbitzuak, inori ezer esan gabe, eta beharra eduki arte inor ez da enteratzen. Mozioa sartu genuenean erantzun ziguten orain dela 30 urte okerrago geundela, ez geneuzkela inguruan gaur egun ditugun ospitaleak, baina esango nuke mediku zerbitzu hobea geneukala. Nik nire medikua kalean ikusten nuenean, geratu egiten ninduen zer moduz nengoen galdetzeko. Burgos zen nire medikua, eta berarekin harreman zuzena neukan. Hura pazienteen etxera joaten zen beharra zegoenean. Gaur egun hori dena galdu egin da. Orain ez dago tratu pertsonalik, medikuak etengabe aldatzen dira eta egun bakoitzean bati kontaktu behar diogu gure pelikula. Hemengo lan baldintzak ez dira onak, eta horregatik dago pertsonal mugimendu handia.

A.S.: Hemen argi daukaguna da lehen geneukan zerbitzu bat kendu egin digutela. Agian Donostiara joateko autobusa ere ez zaio tokatuko Elgoibarri, baina badago. Eta, hori ere kendu egingo digute ez zaigula tokatzen esanda?. Gure ustez zerbitzuak kentzea murrizketak egitea da. Orain dela 30 urteko kontuekin ibiltzeak ez dauka zentzurik. Orduan sakelako telefonorik ere ez geneukan, eta gaur egun bai, eboluzioa egon delako, baina osasungintzan inboluzioa ezagutzen ari gara.

♦ **Zer eskatzen duzue zehazki?**

J.A.: Guk herritar guztiontzako kalitatezko osasungintza publikoa eskatzen dugu. Adinekoak dira murrizketa hau gehien jasaten dutenak, baina denoi eragiten digu. Ni gogoratzen naiz gure alaba txikia zenean ere behin baino gehiagotan joaten ginela

gazez larrialdietara. Orduan merkatu plaza zegoen anbulatorioa, eta zabalik egoten zen gauetan. Baina azken urteetan dena joan dira murrizten: lehenengo mediku bat kendu, gero larrialdiak, larrialdietan pediatriarik ez da egoten anbulatorioan, orduan guraso askok zuzenean Mendarora eramaten dituzte umeak. Larrialdi zerbitzua hiltzen laga dute, erabat kendu duten arte. Gure ustez kalitatezko larrialdi zerbitzua merezi du Elgoibarrek, mediku eta pediatra dituenen. Jende guztiak ez dauka Mendarora joateko aukerarik. Alternatibak jarri behar dira: adibidez, ezin bada anbulatorioa gazez zabalik eduki, jar dezatela telefono bat beharra dutenen eskura, eta auto bat Mendarora joan ezin duena hara eramateko. Aurrez aurreko kontsultak ere indartu egin behar dira, gaixotasun batzuk ezin direlako telefonoz kontrolatu. Medikuek argazkiak bidaltzeko eskatzen du, eta argazki batekin egiten du diagnostikoa, baina jende batek ez daki telefono bidez argazkiak bidaltzen ere. Jende horri zerbitzu duina eskaini behar zaio.

A.S.: Herrietako larrialdi zerbitzuak sustatzeko asmorik ez daukate, bestela honezkero neurriak hartuko zituzten. Guk argi daukagu honen guztiaren arrazoia ez dela pandemia izan. Pandemiak egoera okertu egin du, baina aurretik zetozen murrizketak. Badakigu hau guztia kudeatzea ez dela erraza, baina horretarako daude agintariak; herritarren beharrak entzuteko eta erantzunak emateko.

♦ Zein erantzun jaso duzue agintariengandik?

J.A.: Ez dugu erantzunik jasotzen. Udalaren jarrera gai honen aurrean ez dugu ulertzen. Udala bere herriaren zerbitzura egon behar da, bere herritarren beharrak babesten eta horien alde borrokan, baina ez du ezer egin. Badakigu Jaurilaritzako agintariak ere alderdi berekoak direla, baina gure ustez hori ezin da izan oztopo herriaren alde borrokatzeko. Presionatu egin behar du, eta den-dena ezin badute lortu ere, zerbait seguru baietz. Sentsibilitate falta handia erakutsi du Udal honek. Badirudi agintari hauek ez daukatela amama edo aitiitarik! Beste behin 1.080 euroko gutxieneko pentsioaren aldeko mozioa sartu genuen Udalean. Eskatzen genuen Udalak osatzeko kopuru horretara iristen ez ziren herritarren pentsioak, badakigulako beste Udal batzuek hori egiten dutela, baina ezetz erantzun ziguten orduan ere. Hori ez da herriaren aldeko politika egitea. Esan behar dugu Udaleko bi alderdiren babesa jaso dugula: EHBildu eta Podemos gertu izan ditugu eta mozioak ere haien bidez sartu ditugu, eta hori eskertzekoa da.



A.S.: Udal honen pasibitatea gai honetan izugarria da. Herritarren erdiak baino gehiagok sinatu du, eta agintariak ez dira gurekin harremanetan jarri. Mozioak sartu ditugu, protestak egin ditugu eta Udaleko agintariak ez zaizkigu behin ere gerturatu. Nire ustez horrek asko esaten du Udal honi buruz.

♦ **Herritar guztiontzako borrokan ari zarete, baina mobilizazioetan adin jakin batekoak ikusten dira, gehienbat. Gizarteak zenbaterainoko beharra dauka?**

A.S.: Plataforma hau pentsiodunen mugimendutik sortu zen, eta hein batean normala da adinekoak izatea mobilizazioetan parte hartzen dugunak, beharrik handiera ere guk dugulako. Baina esango nuke anbulatorioaren aldeko mobilizazioetan jende antzagoa biltzen zaigula. Gazteak gutxi, hori egia da.

J.A.: Sinadura kanpaina jende asko gerturatu zaigu, eta adin guztietakoak. Herritarrak haserre daude, baina benetako haserre erakutsi digute. Adin guztietakoak zeuden haserre, adinekoak eta gazteak ere bai, ume txikiak dituztenak, bereziki. Herritarrak ez daude pozik herriarekin, eta ez anbulatorioaren gaiarekin bakarrik. Beste kontu batzuetan ere sartuta gaude, eta herriak hobetzeko behar handia dauka. Oztopo arkitektoniko handiak daude, zakarrontziak falta dira, komunak... eskailera mekanikoak arriskutsuak dira... Hobetzeko gauza asko ditugu, baina anbulatorioarena lehentasunezkoa da gure ustez.

Giro ez izan: Gauzak gaizki, oker edo gogor datozenean erabiltzen da batez ere.
Hori jartzen bada alkate, eztok giro izango baztarretan!

'Peru krokodiloa' ikuskizunerako sarrerak salgai daude

Kantu kolore taldeak *Peru krokodiloa* antzerki, kantu eta dantza saioa eskainiko du datorren martxoaren 1ean, martitzen inauteri egunean. Afrikara abiatuko den krokodiloaren eta bere bila joango diren animalia lagunen abenturak kontatuko dituzte zuzeneko emanaldian musika lagun dutela. Bertaratzen direnek ondo pasatzeaz eta Kantu Kolore taldearen kantu ospetsuenak entzuteko aukera izateaz gain, hainbat balore ere lantuko dituzte: elkartasuna, adiskidetasuna, besteenganako errespetua... Bi emanaldi egingo dituzte Herriko Antzokian 16:30ean bat eta 18:30ean bestea. Sarrerak jadanik salgai daude 3,5 eurotan umeenak eta 5 eurotan helduenak. *herrikoantzokia.eus* webgunean edo zapatuetan 18:15etik 20:45era Herri Antzokiko lehiatilan erosi ahal izango dira.



Ikastaro bat emango du Joseba Irazoki musikari adituak martxoaren 9an Musika Eskolako auditorioan

Elgoibarko Musikarien Elkarteak (Pedro Muguruzako lokaletan elkartzen diren taldeak) hainbat ekintza abiaraziko ditu martxoan. Lehen jarduera Joseba Irazokiren eskutik egingo duten master classa izango da. Ibilbide luze bezain oparoa duen gitarra jole polifazetikoa da Irazoki, konposizioan ez ezik, inprobisazioa ere gogoz bizi duena. Askotariko musika moldetan aritua: folka, rocka, psikodelia... eta tresnen esperimentazioa ere bada bere jardunetako bat.

Ikastaroa martxoaren 9an izango da, 19:30ean Musika Eskolako Auditorioan. Entsegu lokaletan 50 eta 70 lagun bueltan elkartzen badira ere, saioa irekia eta doakoa izango da aforoa (124 lagun) bete bitartean. Izan ere, antolatzaileen esanetan, lokaletan elkartzen direnez gain, Elgoibarren gehiago izan daitezke musikarekin jolasean aritu daitezkeenak.

EMEkoen asmoa da master class honen ondoren, ekintza gehiago antolatzea urtean barrena. Besteak beste, apirilaren 6an Freddi Pelaez grabazio ingeniariaren hitzaldia. Etxeko edo lokaletako grabaketak izango ditu hizpide Horrez gain, apirilaren 30ean EME Eguna egitekoak dira. Musika traste zaharren azoka, bazkaria eta Pedro Muguruzako lokaletan diharduten taldeen kontzertuak izango dira.

Korrikarako kilometroak eskura daitezke AEK euskaltegian

AEK antolatuta Euskal Herrian barrena egingo den euskararen aldeko lasterketa, Korrika, martxoaren 31n abiatuko da eta apirilaren 1ean pasatuko da Elgoibartik. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. Antolatzaileek herritarrek gonbidatu nahi dituzte Korrikan parte hartzera.

Korrika egiteaz gain, hainbat herritarrek lekukoa eramango dute, izan ere, esku pasatuko da erakunde, elkarte, ikastetxe, enpresa... batetik bestera. Lekukoa eraman ahal izateko kilometro bat eskuratu beharko da. Parte hartzeko beste modu bat Korrika laguntzaile egitea da. 12 euroren truke pina eta txartela jasoko ditu hori ordaintzen duenak eta laguntzaile izateak hainbat abantaila ditu. Gainera, aurten ostiralero zozketak egiten dituzte eta 300 sari baino gehiago banatzen ari dira.

Kilometroa eskuratzeko eta laguntzaile izateko AEK euskaltegiarekin jarri beharko dira harremanetan interesatuak, Gabriel Kurutzelaegi, 10 helbidean duten egoitzara joanez, 607 601 423 zenbakira dei eginez edo elgoibar@aek.eus helbidera mezua bidalita.



Inazio Bereziartua musika eskolako 17 ikaslek hartu dute parte Andoaingo piano jaialdian

J oan zen asteburuan jokatu zuten Andoaingo piano jaialdia, eta guztira 11 eta 18 urte bitarteko 550 lagunek hartu zuten parte. Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolatik 17 ikasle izan ziren bertan, eta sei urrezko domina, zilarrezko hamar eta brontzezko bat ekarri dituzte etxera. Pandemiaren eraginez 4 eskutara eta 6 eskutara jotzen diren kategoriak ez dira egin, baina aurten sari berezi bat egon da: Javier Gonzalez Sarmientok obra berri batzuk konposatu ditu lehiaketarako, musika klasikoa eta Jazz-a nahastuz, eta kategoria horretan ere hartu dute parte Elgoibarko ikasleek. Mendaroko Ameikutz musika eskolatik Haizea eta Larraitx Urkiak hartu dute parte.

Bestalde, Inazio Bereziartua musika eskolak gaur egingo du Eguberrietan bertan behera lagatako kontzertua. 20:00etan izango da parrokian.



Villabonako auresku txapelketan hartu dute parte lau elgoibartarrek

Villabonako Auresku Txapelketa jokatu zuten Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako Nerea Galindok, Malen Galarragak, Uxue Cabrerak eta Unax Ansolak maila ona emanaz. Hurrengo hitzordua etxean izango dute martxoaren 13an eta Galindo eta Galarragaz gain, Irene Toledanok, Maialen Pizarrok, Elaia Etxanizek eta Duna Santosek hartuko dute parte. 11:00etan izango da txapelketa Herriko Antzokian.



Lur Bengoetxea eta Ariane Garcia, orri markagailuen lehiaketako irabazle

Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegiak antolatutako orri markagailuen lehiaketak baditu irabazleak: Ariane Garcia Rolo eta Lur Bengoetxea Maiora. Guztira 504 partaide izan ditu lehiaketak. Gemma Moreal margolaria eta Egur tailerreko Usue Egia izan dira epaimahaiko kideak eta balioan jarri dute elgoibartarrek erakutsitako "imajinazioa eta artea". Liburutegiak irabazleak zoriondu ditu eta eskertu du lehiaketan parte hartu izana.



Iker Calvok urrezko lau domina eskuratu ditu Gipuzkoako Neguko Txapelketetan



Paula eta Iker Calvo eskuman, Eibar Igerixan taldekoekin

Bergarako Agorrosingo igerilekuan jokatu zuten Gipuzkoako Neguko Igeriketa Txapelketa, bi jardunalditan, joan den otsailaren 5ean eta 6an. Infantil, junior zein maila absolutuan, hamabost klubetako 226 igerilari aritu ziren lehiari modalitate zein luzeera askotariko probetan. Iker Calvo igerilari elgoibartarrak Eibar Igerixan taldearekin hartu zuen parte eta lehiatu zen proba guztietan gailendu zen, infantil mailan. Tximeleta, bular eta libre erako 100 metroko probak irabazteaz gainera, 200 metro libreko proban ere bera izan zen azkarrena. Ikerren arreba Paulak ere hartu zuen parte txapelketan, eta zilarrezko eta brontzezko domina bana eskuratu zituen erreleboetako nesken taldearekin. 4x200 libreko erreleboan txapeladunorde izan ziren, eta hirugarren egin zuten 4x50 estilokoan. Azkenik, lau estiloko 4x100 errelebo mistoen proban taldekide izan ziren Iker eta Paula neba-arrebak eta brontzezko domina lortu zuten.

Aste Santuko Kirol Campuserako izen ematea, astelehenetik aurrera

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi du otsailaren 21ean, astelehena, zabalduko dutela Aste Santuko Kirol Campusean izena emateko epea. 2010 eta 2015 urte bitartean (biak barne) jaiotako haurrek, hau da, LH1etik LH6ra arteko eskola umeek, parte hartu dezakete. Apirilaren 11n, 12an, 13an, 19an, 20an, 21ean eta 22an egingo dute, herriko hainbat kirol guretan: Olaizaga eta IMH kiroldegietan, Mintxetan, Ikastolako frontoian eta aire librean. Kirol Patronatuko harpidedunek 46 euro ordaindu beharko dituzte, eta harpidedun ez direnek 51,20 euro. Guraso bakarrek familiek %30eko deskontua izango dute. Informazio gehiago Olaizaga kiroldegian eskura daiteke, edota 943 744 415 telefono zenbakira deituta



Gaurvek ligako liderraren aurka jokatu du Olaizagan

Senior mailako Sanloko bi talde nagusiek Olaizagan jokatu dituzte euren partidak, zapatuan. Senior emakumezkoen Gaurve Aseores taldeak Ohorezko Zilarrezko mailako liderraren bisita jasoko du; Gurpea Beti Onak talde nafarra. 19:30ean izango da neurketa. Sekulako denboraldia egiten ari da Atarrabiako taldea: jokatu 19 partidak irabazi ditu, nagusitasunez irabazi ere. Batez beste 30,3 gol sartzen dituzte partidako eta 17,8 gol bakarrik sartzen dizkiete aurkariak. Alegia, kantzako bi aldeetan ondo baino hobeto moldatzen den taldea da. Gaurveren estatistikak bestelakoak dira: 21,7 gol sartzen dituzte, batezbeste, partidako; eta, 26,5 gol jaso. Esan behar da, Gurpea Beti Onak taldean jokatzeko duen goi mailako jokalariek gertutik ikusteko aukera ere izango dutela zaleek zapatuan. Jokalari internazionalak ere badituzte, Argentinako selekzio nagusiarekin jokatzeko duen Macarena Sans edo Txilekoarekin jokatzeko duen Valeska Lovera. Bada partida erakargarri egiten duen beste puntu bat, Nahia Legorburu elgoibartarra talde nafarrean ari baita azken sasoiaren, Sanlok lagata. Senior gizonezkoen Alcorta Forging Group taldeak ere Olaizagan jokatu du igoera faseko partida garrantzitsua, zapatuan, 17:45ean. Azken bi partidak galdu eta gero, igoera lortzeko aukerak zailtzen ari zaizkio Zigor Esnaolak entrenatutako taldeari, baina oraindik liga bukatzeko asko falta da, eta azpimarratu dute hiru asteren ostean desiatzen daudela berriro zaleen aurrean jokatzeko. "Espero dugu zaleek emandako indarrarekin, garaipena lortzea", esan dute.



Felix Manso gailendu da Mintxeta Xake Txapelketaren estreinako ekitaldian



Mintxetako tabernan jokatu zuten estreinako lehena, -eraitsi aurretik-, Iriondo tabernan jokatzeko zuten xake txapelketa. Zubiondo Xake Taldeak antolatzen duen txapelketa irailean hasi zuten eta joan zen domekan bukatu zuten. Iriondon zuten formato bera eduki zuten, hau da, maila desberdinetan banatuta aritu ziren lehen izena eman zuten 50 xakelariak: lau mailatan; eta, azkenengoak bi multzo izan zituen. Lehen mailako ligan Felix Manso xakelari urrietarra gailendu zen, hortaz berak irabazi ditu azken bi edizioak, 2020an jokaturakoa ere irabazi baitzuen. Jokaturako bederatzita partidetatik zortzi irabazi eta bakarrik galdu ostean, 8 punturekin amaitu zuten txapelketa. Aitor Gallastegi sailkatu zen bigarren, 5,5 punturekin eta Juanjo Gomez hirugarren, 4,5 punturekin. Gomez izan zen sailkapeneko lehen elgoibartarra; eta, Lorea Gorostiza mendaroarra lehen emakumezkoa. 18 urtez azpikoetan Hodei Kerexeta izan zen onena. Maila bakoitzeko irabazleei dagokionez, Anibal Fernandez azkoitiarra gailendu zen bigarren mailan, Iñaki Burunza plaentxiarra hirugarren mailan eta David Perez mendaroarra laugarren mailan. Kopa txapelketan, berriz, Juan Manuel Navarro eta Mikel Leon ailegatu ziren finalera eta Navarro gailendu zen. Leku askotariko xakelariak hartu zuten parte aurtengoan ere, besteak beste: Mendaro, Eibar, Sorluze, Deba, Azpeitia, Azkoitia, Urnieta, Zestoa, Elorrio edo Donostia. "Esango genuke ez dagoela Euskal Herri osoan halako parte hartzerik duen lagun arteko txapelketarik", nabarmendu dute antolatzaileek.

Mendiko kiroletan emakumeen presentzia ikusaraztea helburu duen argazki erakusketa ikusteko aukera izango da Elgoibarren

Jon Martinez Ibarra argazkilariren *Mendia emakumetasunetik* erakusketa ekarriko dute Elgoibarrera, martxoaren 8aren harira antolatutako ekimenen barruan. Argazkilariren berbetan, ez da justizia sozialeko proiektu bat, ezta diskurtso feminista bat ere; mendiko kiroletan emakumeen presentzia ikusarazteko modu bat baizik. Mendiko kirolena "ia beti irudi maskulino batek ordezkatzen duen mundu bat" dela dio argazkilariak. Bere ustez, emakumeak mendian ibiltzea normala da, eskalada, alpinismoa edo mendiko eskia praktikatzeko baititu haiek. Elkarbizitza horretatik eta emakumea bigarren mailan uzten zela ikustetik sortu zen proiektu honen ideia. Ez bakarrik existitzen direla erakusteko, baizik eta, protagonistak izateaz gain, batzuk erreferenteak direla erakusteko. Ezagutzen ez den egia eta errealitatea erakustea da *Mendia emakumetasunetik* erakusketaren helburua. Martxoaren 4tik 13ra bitartean egongo da ikusgai Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Gainera, argazkietako zenbait protagonistek (Sonia Casas, Ane Hernani eta Oihana Azkorbebeitia) bisita gidatua eta solasaldia egingo dute, martxoaren 10ean, 19:00etan.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 4 – Allerru 2 (Oho. erregionala)
 Antiguoko 3 – Elgoibar 1 (Emakumeak, nag.)
 Mariño 3 – Elgoibar 0 (Erregionala)
 Elgoibar 0 – Lagun Onak 2 (Ohorezko jub.)
 Elgoibar 2 – Beti Ona 1 (1. mailako jub.)
 Eibar 1 – Elgoibar 1 (Oho. kad.)
 Eibartarrak 0 – Elgoibar 4 (Kad. 1. maila)
 Goierri Gorri 2 – Elgoibar 2 (Kad. neska.)
 Arrasate 0 – Elgoibar 4 (Inf. Txiki)
 Elgoibar 1 – Urki 0 (Inf. gorria)
 Aretxabaleta 0 – Elgoibar 4 (Inf. txuria)
 Elgoibar 0 – Arrasate 2 (Inf. berdea)

SASKIBALOA

Mondragon Unibertsitatea B 69 –
 Modelos Modelberri 62 (Gipuzkoako 3. maila)

ESKUBALOA

Pneumax Elg. 42 – Ereintza 12 (Inf. neska.)
 Saiako 17 – Bacalaos Alcorta 24 (Inf. neska.)
 Urnieta 24 – Urkunde Elg. 36 (Kad. mut.)
 Leizaran 26 – Hotel Txariduna 12 (Inf. mut.)
 Astigarraga GYS 21 – Usurbil 20 (Kad. nesk.)
 Ereintza 10 – Tecnifuelle Elg. 21 (Inf. neska.)
 Bergara 31 – Deuko Izarra 31 (Jub. mut.)
 Deca Elg. 29 – Egia 24 (Inf. neska.)
 G. La Rioja 27 – Gaurve Asesores 21 (Sen. emak.)
 Salento Gelati 27 – Aloña Mendi 28 (Kad. neska.)
 Aloña Mendi 25 – Alcorta F.G. 22 (Sen. giz.)
 Urola 24 – Arilan Elg. 27 (Senior emak.)
 CIMDE 27 – Aiala Zarautz 27 (Jub. neska.)
 Dario Bus 16 – Aiala Zarautz 28 (Inf. neska.)
 Legazpi 21 – Neurri Elg. 22 (Kad. neska.)
 Zubacor 23 – Arrate Eibar 31 (Inf. mut.)
 Pizzeria Salento 32 – Donibane 21 (Sen. giz.)



LANA.....

Eskaerak

Adinekoak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Ospitalean, gauzez edo orduka. Erizain laguntzaile titulua daukat. ☎ 634 692 962

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Erizain laguntzaile titulua daukat.

☎ 633 496 455

Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 653 407 897

Adinekoak zaintzeko prest nago. Egunez, orduka, zein gauzez.

☎ 641 322 939

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia.

☎ 643 704 118

Etxeak edo portalak garbitzeko prest nago. Elgoibartarra naiz.

☎ 632 729 663

Adinekoak ospitalean edo etxean zaintzeko profesionaltasun-ziurtagiria duen laguntzailea, lanerako prest. Goizez, arratsaldez, orduka... esperientzia daukat, eta elgoibartarra naiz.

☎ 685 729 790

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ 631 229 408

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Beharrezkoak diren tituluak ditut baita esperientzia ere. Euskalduna naiz. ☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan, gauzez edo orduka. Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. ☎ 631 425 686

Adinekoak zaintzeko eta sukaldari edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 643 071 900

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. ☎ 642 196 564

Adineko pertsonak ospitalean edo etxean zaintzeko profesionaltasun-ziurtagiria duen laguntzailea, lanerako prest. Esperientzia. Elgoibartarra naiz.

☎ 660 511 781

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka, etxeko langile moduan, asteburuetan... ☎ 632 589 202

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago.

☎ 641 341 896

LHko eta DBHko eskolak emateko prest nago. Arratsaldez.

☎ 649 446 529

Eskaintza

Aste barruan umeak goizean, eguerdian eta arratsaldean ikastolara eraman eta

handik etxera ekartzeko pertsona bat behar dugu. ☎ 628 115 677

BPXport enpresak Olaizaga kiroldegiko eta Mintxeta kirolguneko harreran lan egiteko pertsona behar du. Administrazioan eskarmentua izatea eta euskaraz jakitea eskatzen da. CV elgoibar@bpxport.es helbidera bidali behar da.

GARAJEAK.....

104m²-ko garaje itxia alokatzen dut, Olastope inguruan. Autokarabana gordetzeko eta pintore edo igeltseroentzako aproposa. ☎ 661 827 292

ETXEBIZITZAK.....

70 m²-ko Babes Ofizialeko etxea salgai Gabriel Kurutzelaegin. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna eta balkoia barrualdara. Garajea eta trasteroarekin. Mugitzea desgaitasuna duten pertsonentzat egokitua.

☎ 688 724 122

Etxea hartuko nuke alokairuan. Luzerako alokairua izango da.

☎ 643 654 881

BESTELAKOAK.....

Hilaren 29an Karakateko aparkalekuan ume baten bizikleta kaskoa topatu genuen. ☎ 639 671 419


OSPAKIZUNAK.....

Maiatzaren 28an 1971n jaiotakoen bazkaria egingo dugu, Belaustegi jate-txean. Egun osoko egitaraua prestatzen ari gara. Izena emateko: 1971elgoibar@gmail.com

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos</p>  <p>ROSA Ma PINTADO</p> <p>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Nire bizilagunen komunitatean zutabe aizunetatik pasatzen ziren hondakin-uren hodiak konpondu dituzte. Zutabeak kendu eta hodiak sabaitik pasatzea lokalen onurarako izan da. Lokalen jabeak eskatu du lokal guztien hedadura estaliko duen sabaia eraikitzea. Eskatu al dezake lokalen jabeak sabai hori egitea? Hori hala balitz sabai guztia estali beharko litzateke ala hodiak estaltzen dituen zatia baino ez?</p> <p>Galdera honen oinarria da komunitatea derrigortuta al da goen kalte estetikoak ordaintzera lanak guztien elementuak konpontzeko egiten direnean, baina jabetza pribatu bati eragiten diotenean. Nire ustez, eskatu daiteke sabai hori jartzea, baina ez lokal guztian, hodiak estali behar diren gunean baino ez, hor egin baita kalte estetikoak. Horrelakoetan, kalte estetikoak, komunitateak ordaindu behar ditu, bere ardurapean baitaude ez-beharrak eragindako kalte guztiak.</p> <p>Aholkua: Lanak lokalean izan diren kalte guztiak konpontzeko izan behar dira, baita estetikoak ere. Beraz, lokalen jabeak eska dezake obra hauek egitea lokalaren itxura egokia errespetatuz.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--




Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Jakes**, gaur 7 urte egin dituzulako. Patxo potoloak, etxe-koen partez.



Zorionak, **Ibai**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxe-koen, eta bereziki, Ane, Jare, Naia, Aratz eta anaia Lierren partez.



Zorionak, **Ekhi!** Gaur 10 urte! Ondo pasa eta muxu handi bat, etxe-koen partez.



87 urte! Zorionak eta eutsi luzaruan orain arteko umoreari eta bizi-pozari! A, zaindu tripak, bixar Bilbon latza bota behar dogu eta! Maite zaitugu! Etxekuak.



Zorionak, **He-lenka!** Gaur 10 urte! Ondo pasa eta gozatu zure eguna! Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Ni-kole**, gaur 8 urte egin dituzulako. Etxeko guztien, eta bereziki, Enekoren partez.

Katamixarren basoa

NATURAN HAZI ETA HEZTEKO GUNEA

4-12 URTE BITARTEKO HAURENTZAT

Martxoaren 1 etik aurrera

Astearte- asteazken edo osteguna

16:45 - 18:45.

Txillarre baserriko basoan

Elgoibar

IZEN EMATEA:

katamixarrenbasoa@gmail.com

Otsailaren 25era arte.

644 793 343

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean

943 743 704

688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

Gustoko

Kalitatea eta jatorria

22/3/4-6

Zaporeak, sentsazioak eta produktu berriak Zatoz BEC-eral!

www.gustoko.eu

Kolaboratzaile nagusiak:

Antolatzailea:

18 BARIKUA

20:00 Inazio Bereziartua musika eskolakoen kontzertua, parrokiak.

19 ZAPATUA

9:30 Zuhaitz Eguna, Mendaron. Herriko Enparantzan batuko dira.

11:00 'Gipuzkoa dantzan'. Inklusioa bultzatzeko ekimena, Aita Agirre kultur-guneko areto nagusian.

21 ASTELEHENA

19:00 Hitzaldia: "Elgoibarko basoen etorkizuna". Hizlaria: Iñaki Aizpuru botanikoa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22 MARTITZENA

11:00 Hitzaldia: 'Nekazaritza politika bateratuaren erreforma'. Antolatzailea: ENBA. Izena emateko: 943 650 123 edo gipuzkoa@enba.eus.

18:00 Literatura tailerra: 'El último septiembre'. Haizeak antolatuta, Elisabeth Bowenen liburua landuko dute, Udal Liburutegian.

23 EGUAZTENA

16:00 Hitzaldia: '65 urteko adinetik aurrerako elikadura'. Kontsumobidek antolatuta, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

19:00 Epeletan literatura tailerra. Pello Lizarralderen 'Argiantza' liburua landuko dute. Udal Liburutegian

25 BARIKUA

19:00 Kontzertua: Zelanda eta Dientes de luna. Kultura Sailak antolatuta, Herriko Antzokian. Sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus webgunean.

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

'INES OSINAGA ETA JOSEBA SARRIONANDIA'

GAUR, OTSAILAK 18, 19:00ETAN, SORALUZEN

Ines Osinaga musikariak eta Joseba Sarrionandia idazleak 'Olatu arteko txalupa arraroa. Kantak eta berbak' ikuskizuna emango dute GAUR, otsailak 18, Soralezeko antzokian. Emanaldirako sarrerak salgai daude Soralezeko Iratxo goxodendan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'El método Williams'

18 barikua: 21:00
19 zapatua: 19:00 / 22:15
20 domeka: 19:00
21 astelehena: 21:00

'Ilargirantz'

20 domeka: 16:30

'Libertad'

(Ongarri zinekluba)
23 eguaztana: 21:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

18 BARIKUA	19 ZAPATUA	20 DOMEKA	21 ASTELEHENA	22 MARTITZENA	23 EGUAZTENA	24 EGUENA	25 BARIKUA
Egunez Arriola	Egunez *Fernandez Barrenetxea	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gauetz: 22:00-09:00
Esther Mendinueta Berastegui.
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)
943 820 106



I. URTEURRENA

Desiderio del Hoyo Amigo

"Desi"

2021eko otsailaren 19an hil zen, 78 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
otsailaren 20an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.***

Zure familia



I. URTEURRENA

Jesus Mari Iriondo Arrizabalaga

2021eko otsailaren 20an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko
meza izango da, domekan, otsailaren 20an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome
Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzean.



IV. URTEURRENA

Mikel Gorostiza Etxaniz

2018ko otsailaren 22an hil zen, 94 urte zituela.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko.
Gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.***



VIII. URTEURRENA

Bittor Alberdi Elorza

"Patxillo"

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

***Agurrak ez dira gustukoak,
ez dakigu ondo zela bukatu, zer esan, zer isildu.
Beraz, ez malko, ez tristura
ez agur, ez adiorik, gero arte izango da soilik.
Maitxe zaitxugu.***



EXPRESS ESKAINTZAK!

CATA MDS7206X FUNTZIO ANITZEKO LABEA

289 €

A

- Funtzio anitzekoa
- Pantaila digitala *Push Pull* agintearekin
- 72 litro
- *Aquasmart* garbiketa
- Beroketa azkarraren funtzioa



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Osasun gida


RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734


RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPCIMATUA

Toribio Etebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 687 963 628
www.fisio-mas.com
RPS 87/12

RPS 271/12

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745 

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

leku edero
horts klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

Osasun gida